



ASTELEHENA, 2019KO MAIATZAK 27
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarra: 687 410 118. ibarra@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**




www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezqueta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil




Tolosaldeko
gizarte
eragileak



Erabak eserle

EH Bildu
EAJ
PSE-EE
Hautetsi zer

ki dira ekuak





EH Bildu koalizioak eskuratu ditu alkatetza gehien eskualdean

Ezker abertzaleko koalizioak 18 herritan alkatetzak lortu ditu; EAJk Tolosan irabazi du, baina ez du gehiengoa berretsi, eta PSE-EEk Berrobin eta Larraulen lortu ditu alkatetzak

Imanol Garcia Landa

Kopuruari begiratuta, EH Bildu izan da udal hauteskundeetako irabazlea eskualdean, alkatetza gehien eskuratu baititu. Guztira 19 herritan aurkeztu da koalizioa –aurrekoetan 20 herritan izan zituen zerrendak– eta horietatik 18tan lortu du alkatetza. Hamasei herritan errepikatu du alkatetza EH Bilduk, eta Irurakoa eta Amasa-Villabonakoa izan dira lortu dituen bi alkatetza berriak, azken lau urteetan oposizioan egon ondoren.

Hauteskunde hauetan EH Bilduk Berrobin ez du aurkeztu zerrendarik, eta beraz, ez du bertako alkatetza. Sei udalerrikan, Aduna, Altzo, Elduain, Gaztelu, Orendain eta Oresan, aurkeztu den zerrenda bakarra izan da. Guztira 107 zinegotzi lortu ditu EH Bilduk eskualdean, aurrekoetan baino 3 gutxiago. Botoei dagokionez, 11.340 eskuratu ditu, orain lau urte baino 1.331 gehiago.

EAJk, bere aldetik, Tolosan irabazi ditu hauteskundeak, baina ez du gehiengo osoa lortu. Zortzi zinegotzi lortu ditu, bigarren geratu den EH Bilduk lortutako eserleku berak, eta PSE-EEk zinegotzi bat lortu du. Alderdi jeltzaleak Amasa-Villabonan eta Iruran zituen alkatetzak galdu egin du.

Eskualdeko zortzi herritan aurkeztu da EAJ, orain lau urte baino bi gutxiagotan, Alegian eta Berastegin ez baitu zerrendarik



Tolosako musika eskolako hauteslekuan, herritar bat udal hauteskundeetako kutxan botoa ematen. I.G.L.

aurkeztu. Guztira 34 zinegotzi lortu ditu, aurreko hauteskundeetan baino 10 gutxiago. Botoei dagokionez, 7.754 lortu ditu, aurrekoetan baino 1.326 gutxiago.

Eskualdeko bi herritan, Berrobin eta Larraulen, PSE-EE alder-

diak bakarrik aurkeztu ditu zerrendak udal hauteskundeetan. Bi herrietan boto zuriaren aldeko eskaerak izan dira, PSE-EE ez iristeko zinegotziak izateko beharrezkoa den %5era. Baina bi herrietan lortu du kopuru hori gaitzitea eta, beraz, herri bakoitzean zinegotzi guztiak eskuratu ditu, zazpina, eta alkatetza lortu du batean zein bestean. Beste kontu bat izango da alderdiak zer erabakitzen duen alkatetza ofizialki hartzearen inguruan.

Guztira 16 udalerrikan aurkeztu ditu zerrendak PSE-EEk, aurreko hauteskundeetan bezala. Aldaketa bakarra herriari dagokio: orain lau urte ez bezala, Belauntzan ez dute aurkeztu zerrendarik eta Alkizan bai. Alkatetza lortu duen bi herriez gain, Tolosan, Amasa-Villabonan,

Ibarran eta Zizurkilen lortu du ordezkarietza. Guztira 19 zinegotzi lortu ditu, horietatik 14 Berrobin eta Larraulgoak. Botoei dagokionez, 1.587 eskuratu ditu, aurreko udal hauteskundeetan baino 343 gehiago.

Elkarrekin Podemos lehen aldiz aurkeztu da eskualdean udal hauteskundeetan. Tolosan eta Amasa-Villabonan aurkeztu da eta bi udalerrietan ez du zinegotzirik lortu. Guztira 669 boto eskuratu ditu bi herriak kontuan hartuta.

PP alderdia udalerririk bakarrean aurkeztu da, Tolosan, hain zuzen. Aurrekoetan 11 udalerrikan izan zituen zerrendak. Tolosan, orain lau urte gertatu zitzaion moduan, ez du zinegotzirik lortu. Tolosako botoei dagokionez, 214 lortu ditu, orain lau urte baino 60 gutxiago.

HAUTETSI ZERRENDEK ZAZPI ALKATETZA

Hamahiru herritan aurkeztu dira hautetsi zerrendak eskualdean, eta horietatik zazpitan lortu dute alkatetza. Hiru herritan mota horretako zerrenda zen aurkeztutako bakarra udal hauteskunde hauetan: Abaltzisketan Herrigintza, Baliarrainen Auzolanean Bizirik eta Hernialden Herniope.

Hautetsi zerrendek alkatetza lortu duten beste lau herriak eta zerrenden izenak ondorengoak dira: Albizturren Albiztur Bizituz, Alkizan Alkizako Abertzale Ezkertiarak, Asteasun Asteasu Batuz eta Belauntzan Denok Bat. Azken hiru herrietan errepikatu egin dute alkatetza, eta Albizturren kasuan, hautetsi zerrenda berri bat da aurkeztu dena eta horrek lortu du alkatetza.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA


(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua



BOTOAK H. HAUTETSIK	2019		2015		2019		2015		2019		2015		2019		2015		2019		2015											
	B	H	B	H	B	H	B	H	B	H	B	H	B	H	B	H	ZURIAK	ZURIAK	ABS.	ABS.										
HERRIA	EH BILDU		EH BILDU		EAJ		EAJ		PSE-EE		PSE-EE		PP		PP		ELKARREKIN PODEMOS	Hautetsi zerrenda 1	Hautetsi zerrenda 2	Hautetsi zerrenda 1	Hautetsi zerrenda 2	ZURIAK	ZURIAK	ABS.	ABS.					
Abaltzisketa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	152 ⁽¹⁾	7	-	-	140 ⁽¹⁾	7	-	-	20	12	30,03	37,55	
Aduna	230	7	205	7	-	-	-	-	-	-	-	-	-	8	0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	17	28	26,96	29,79		
Albiztur	-	-	-	-	-	-	2	0	13	7	-	-	0	0	-	-	-	145 ⁽²⁾	7	-	-	-	-	-	2	157	34,49	30,12		
Alegia	481	5	456	6	-	-	278	3	14	0	24	0	-	10	0	-	-	421 ⁽³⁾	4	-	-	-	-	9	28	26,45	36,97			
Alkiza	-	-	-	-	-	-	-	-	4	0	-	-	-	2	0	-	-	130 ⁽⁴⁾	7	-	-	145 ⁽²⁾	7	-	37	20	31,00	36,74		
Altzo	205	7	169	7	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	17	33	28,87	31,12		
Amasa-Villabona	1517	7	1129	6	1058	5	1.287	6	199	1	200	1	-	-	-	-	149	0	-	-	-	-	-	-	45	110	31,28	36,27		
Amezketeta	351	5	308	5	-	-	-	-	-	-	3	0	-	-	-	-	-	167 ⁽⁵⁾	2	-	-	128 ⁽³⁾	2	-	11	20	24,25	36,61		
Anoeta	585	6	512	5	423	5	445	4	40	0	25	0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	22	30	29,07	30,61			
Asteasu	-	-	-	-	158	2	184	2	19	0	19	0	-	-	-	-	-	499 ⁽⁶⁾	7	-	-	468 ⁽⁴⁾	7	-	30	23	38,77	37,42		
Baliarrain	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	62 ⁽⁷⁾	5	-	-	-	-	-	1	-	30,00	-		
Belauntza	-	-	-	-	-	-	-	-	3	0	0	0	-	-	-	-	-	82 ⁽⁸⁾	4	46 ⁽⁹⁾	1	88 ⁽⁵⁾	4	68 ⁽⁶⁾	3	4	4	21,81	16,33	
Berastegi	398	6	325	6	-	-	146	3	6	0	2	0	-	-	-	-	-	254 ⁽¹⁰⁾	3	-	-	-	-	12	42	20,93	36,89			
Berrobi	-	-	223	7	-	-	-	-	30	7	6	0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	218	31	41,89	38,34		
Bidania-Goiatz	169	4	175	4	-	-	-	-	5	0	2	0	-	-	-	-	-	110 ⁽¹¹⁾	3	-	-	106 ⁽⁷⁾	3	-	2	6	26,78	26,02		
Elduain	92	5	48	5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	19	49	38,04	42,22		
Gaztelu	45	5	57	4	-	-	-	-	-	-	-	-	-	0	0	-	-	-	-	-	-	37 ⁽⁸⁾	1	-	22	5	31,62	17,60		
Hernialde	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	134 ⁽¹²⁾	7	-	-	128 ⁽⁹⁾	7	-	17	15	35,02	45,48		
Ibarra	1007	6	941	6	798	4	882	5	191	1	153	0	-	42	0	-	-	-	-	-	-	-	-	40	69	34,69	35,38			
Ikaztegieta	150	4	130	4	115	3	110	3	3	0	2	0	-	1	0	-	-	-	-	-	-	-	-	0	9	25,00	28,07			
Irura	458	5	315	4	350	4	419	5	39	0	22	0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	17	39	30,78	31,51			
Larraul	-	-	-	-	-	-	-	-	19	7	12	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-	69 ⁽¹⁰⁾	6	-	95	39	38,17	29,89		
Leaburu-Txarama	117	4	109	4	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	77 ⁽¹³⁾	3	-	-	94 ⁽¹¹⁾	3	-	8	8	24,54	21,85		
Lizartza	296	7	240	7	-	-	-	-	-	-	-	-	-	12	0	-	-	33 ⁽¹⁴⁾	0	-	-	-	-	15	49	24,07	30,17			
Orendain	90	5	82	5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	30	22	19,23	23,21			
Orexa	75	5	72	5	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	3	13,63	16,48		
Tolosa	4249	8	3779	7	4464	8	4.723	9	742	1	637	1	214	0	274	0	520	0	-	-	-	-	-	-	87	250	31,31	34,17		
Zizurkil	825	6	736	6	388	3	596	4	267	2	124	1	-	20	0	-	-	-	-	-	-	-	-	-	29	40	32,59	33,16		
GUZTIRA	11340	107	10011	110	7754	34	9.070	44	1.587	19	1.244	11	214	0	370	0	669	0	-	59	0	1	0	47	0	3	825	1.141	31,04	34,11

2019: HAUTETSI ZERRENDAK (1) Herrigintza; (2) Albiztur Bizituz; (3) Aurrera Alegia; (4) Alkizako Abertzale Ezkertiarrak; (5) Amezketeta Etorkizun; (6) Asteasu Batuz; (7) Auzolanean Bizirik; (8) Denok Bat; (9) Belauntzako Herritarak; (10) Berastegi Bizirik; (11) Garai Berriak; (12) Hemiopie; (13) Bide Berriak; (14) EQUO;

2015: HAUTETSI ZERRENDAK (1) Herritarak; (2) Alkizako Abertzale Ezkertiarrak; (3) Amezketeta Auzolanean; (4) Asteasu Batuz; (5) Denok Bat; (6) Gazteak Aurrera; (7) Garai Berriak; (8) Udaberri Taldea; (9) Hernialdeko Herritarak; (10) Larraulgo Herritarak; (11) Bide Berriak;



24.988

BOTOAK

Eskualdeko 36.235 herritar zeuden deituak udal hauteskundeetan parte hartzera, eta horietatik 24.988k eman du botoa, hau da, %68,96ak. Abstentzioa, beraz, %31,04koa izan da, aurreko deialdian baino %3,07 baxuagoa.

ESKUALDEKO ARGAZKIA

BERDE ARGIA. EH Bildu.

BERDE ILUNA. EAJ

GORRIA. PSE-EE

BELTZA eta GRISAK. Hautetsi zerrendak

M26



Hauteskundeek emandako guztia
ataria.eus webgunean



Eskualdean nagusitasuna berretsi du Euskal Herria Bilduk

EAJrekiko aldea handituz, 11.177 boto jaso ditu batzar nagusietarako; Oria barrutitik lau eserleku eskuratu ditu koalizioak, EAJrekin parekatuta, eta bakarra lortu du PSE-EEk

Itzea Urkizu Arsuaga

Ohiko joerari eutsi, eta Tolosaldean nagusitasuna berretsi du, EH Bilduk, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundee-tan. 11.177 boto jaso ditu koalizio abertzaleak, eta EAJ izan da bigarren indarra, 9.492 botorekin; aldea 1.685 botokoa da, eta hazi egin da 2015ko bozekin konparatuz gero –orduan 1.068koa izan zen–. PSE-EEk, berriz, 1.838 herritarren babesa jaso du eskualdean, eta Podemos izan da laugarren indarra, 1.377 boto eskuratu.

Datu horiek aintzat hartuta, Tolosaldeko bi hautetsik eskuratu dute eserlekua, batzar nagusietan: Amaia Azkuek (EH Bildu) eta Jose Ignacio Asensiok (PSE-EE). Izan ere, Podemosek galdu egin du 2015ean Oriako hauteskunde-barrutian eskuratutako eserlekua, jeltzaleen alde; Carmen Salido ez da batzarkide izango. Barrutiaren emaitza orokorreki begiratu, beraz, 4 eserleku lortu ditu EH Bilduk, 4 EAJk eta 1 PSE-EEk.

Gainerako bozetan bezala, batzar nagusietakoan ere parte hartzeak gora egin du Tolosaldean, eta herritarren %3 gehiago berta-



Batzar nagusietako bozetan ere gora egin du parte hartzeak, eskualdean. I. URKIZU ARSUAGA

ratu ziren, atzo, hautetsontzietan botoa sartzera.

51 BATZARKIDETIK 9

Tolosaldeko herritarrek Oriako hauteskunde-barrutiaren izenean hautatzen dituzte batzarkideak, foru hauteskundeetan: guztira, bederatzi. Izan ere, Gipuzkoa-

ko Batzar Nagusietako 51 eserlekuak lau hauteskunde-barrutitan banatzen dira –Donostialdea, Deba-Urola, Bidasoa-Oiarzun eta Oria–, eta biztanle kopuruaren arabera da, barruti bakoitzetik aukeratutako ordezkari kopurua.

Azken legegaldian eskualdeko

lau batzarkide aritu dira, Gipuzkoako Batzar Nagusietan: Onintza Lasa (EH Bildu), Xabier Olano (EH Bildu), Maria Anjeles Lazkano (EAJ) eta Ione Cisneros (Podemos). Atzoko bozetarako, berriz, Tolosaldeko 11 hautetsik aurkeztu zuten beren burua: EH Bilduko Amaia Azkuek, Xabier

Olanok eta Unai Iraolak; EAJko Maria Anjeles Lazkanok, Maialen Ezkiagak eta Begoña Tolosak (ordezkoa); Elkarrekin Podemoseko Carmen Salidok eta Mikel Gonzalez-Etxeberriak; PPko Pello Atxukarrok eta Angel Yañezek; eta PSE-EEko Jose Ignacio Asensiok.

Ekainaren 3tik 14ra

AURRE MATRIKULA

eskaintza guztia EUSKARAZ
LAN ETORKIZUNERAKO LEHEN URRATSAK

lan politza ETHAZI kompetentziak DUAL KASTN Erasmus KT Eleaniztasuna

ERDI MAILA

- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA (ELEANITZA)
- MEKANIZAZIOA (ELEANITZA)
- MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK (ELEANITZA)
- INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK (ELEANITZA)
- MERKATARITZA JARDUERAK

GOI MAILA

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK (ELEANITZA)
- AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- SAREKO INFORMATIKA-SISTEMEN ADMINISTRAZIOA (ELEANITZA)
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA (ELEANITZA ETA ESKAINTZA PARTZIALA)
- ERAIKUNTZA METALIKOAK
- INSTALAZIO TERMIKOAK ETA FLUIDODUNEN MANTENTZEA
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA (ELEANITZA)

ADI, lege aldaketak: aurrematrikula egitea beharrezkoa da matrikulatu ahal izateko!


Tolosaldea
Lanbide Heziketa Institutua

Santa Luzia 17 - Tolosa
943 65 11 47
www.tolosaldea.com

<https://www.facebook.com/tolosaldea>
<https://twitter.com/TolosaldeaLH>
<https://www.youtube.com/TolosaldeaLH>



HERRIA	2019 EH BILDU	2015 EH BILDU	2019 EAJ	2015 EAJ	2019 PSE-EE	2015 PSE-EE	2019 PP	2015 PP	2019 ELKARREKIN PODEMOS	2015 IRABAZI	2015 PODEMOS	2019 ZURIAK	2015 ZURIAK	2019 ABS.	2015 ABS.
Abaltzisketa	81	79	88	62	1	1	0	0	4	1	7	4	3	28,85	37,29
Aduna	162	154	72	50	2	2	0	1	11	1	19	6	15	26,76	29,59
Albiztur	46	48	84	88	7	8	0	0	7	4	8	1	15	36,24	31,32
Alegia	465	421	329	277	49	22	16	15	46	5	53	8	8	26,85	36,74
Alkiza	93	85	61	68	4	0	1	2	10	2	6	4	4	31,51	35,74
Altzo	150	143	64	47	2	1	0	0	11	0	8	5	8	28,65	29,33
Amasa-Villabona	1347	1059	1092	1032	238	225	77	71	169	38	279	28	51	31,14	36,01
Amezketeta	320	249	162	144	5	1	0	8	11	4	30	15	13	26,09	38,4
Anoeta	534	476	379	375	67	54	11	17	62	7	74	9	10	29,22	31
Asteasu	397	382	217	217	27	18	11	5	36	5	57	9	12	38,97	37,26
Baliarrain	40	42	13	5	1	0	0	0	0	0	2	0	1	37,07	49,49
Belauntza	65	75	57	55	3	1	0	2	3	1	15	2	6	28,1	21,39
Berastegi	337	289	287	183	12	2	2	4	20	1	21	11	17	20,98	36,81
Berrobi	144	168	83	57	10	2	5	9	21	3	19	5	5	37,69	38,34
Bidania-Goiatz	156	166	90	97	5	3	3	3	11	2	10	10	5	28,13	26,34
Elduain	80	68	37	34	1	1	0	0	1	1	2	1	1	33,15	40
Gaztelu	43	51	29	35	0	1	0	0	8	5	2	1	1	28,2	22,4
Hernialde	61	58	62	51	4	2	5	1	7	3	19	11	7	34,32	46,21
Ibarra	855	872	722	743	231	165	38	57	155	21	190	15	40	34,66	35,27
Ikaztegieta	145	126	105	97	9	2	3	1	7	0	19	1	8	25,27	30,79
Irura	365	294	356	351	64	45	9	10	50	9	69	13	21	30,88	31,33
Larraul	68	59	28	23	2	2	0	0	11	3	12	4	0	38,7	41,37
Leaburu-Txarama	118	122	68	70	3	0	0	1	3	0	2	4	9	26,66	23,88
Lizartza	271	238	60	61	2	0	1	5	6	0	5	2	5	24,67	29,11
Orendain	85	77	35	25	0	0	0	0	4	1	6	2	2	18,7	21,12
Orexa	71	70	4	1	0	0	0	0	0	0	0	0	5	14,77	13,33
Tolosa	3981	3477	4402	4148	875	621	256	316	628	146	810		142	31,25	34,26
Zizurkil	697	669	506	533	214	139	19	33	75	10	107	7	33	32,44	33,14
GUZTIRA	11177	10017	9492	8929	1838	1318	457	561	1377	273	1851	178	447		



24.915

BOTOAK

Eskualdeko 36.229 herritar zeuden foru hauteskundeetan parte hartzera deituta, eta horietatik %68,77k eman dute botoa; hau da, 24.915k. Abstentzioa %31,23koa izan da, aurreko deialdian baino hiru puntu baxuagoa.

ESKUALDEKO ARGAZKIA

BERDE ARGIA. EH Bildu.

BERDE ILUNA. EAJ

ESKUALDEKO BATZARKIDEAK



**AMAIA
AZKUE**
EHBILDU



**JOSE IGNACIO
ASENSIO**
PSE-EE



EAJk irabazi du Tolosan, udal gobernurako gehiengoa lortu gabe

EH Bildu izan da bigarren indarra, 200 botoren aldearekin. Elkarrekin Podemosk, 13 botogatik ez du zinegotzia lortu. EAJk eta EH Bilduk 8 hautetsi lortu dituzte; PSE-EEK, 1.

Josu Artutxa Dorronsoro

Olatz Peonek, azken astean adierazi bezala, maratoni moduko bat izan dira azken egun hauek. Azkenean, atzo, helmugarako bidean, bi alderdiren lehia estua bizi genuen, lehen postua aldatzen joan baitzen, mahai ezberdinetako botoak zenbatu ahala. 2019ko Udal Hauteskundeetan 200 boto ingururen aldea izan da EAJ eta EH Bilduren artean. Peonen alderdiak lortu du herritar gehienek babesa, baina ez (2015ean bezala) udal gobernua osatzeko gehiengo absolutua.

Guztira, 15.071 herritar zeuden bozkatzera deituak. 14:00etarako, %39,87koa (2015ean, %39,60) zen parte hartzea, eta 18:00etarako, berriz, %54,11koa (duela lau urte, %51,55koa). Azkenik, hautetsontziak ixtarekin batera, 20:00etan egindako kontaketan, %68,98koa izan zen parte hartzea (azken udal hauteskundeetan, %65,83koa izan zen).

ZINEGOTZI BATEN DANTZA

Boto kopuruen arabera, gehien eta gutxien bozkatutako alder-

dien ordenean, askok espero ez bezala, Elkarrekin Podemos alderdi berriak ez zuen zinegotzirik lortu. Iñigo Cabieces, udal txean eserlekua lortzetik 13 boto-erara geratu zen. Bestela, EAJren boto kopuruek behera egin zuten, eta EH Bildu eta PSE-EErenek, berriz, gora.

AKORDIOAREN BEHARRA

Ondorioz, ez EAJk, ezta EH Bilduk ere, ez zuten udal gobernua osatzeko gehiengoa lortzerik izan. Hori dela eta, orain, bederatzigarren zinegotziaren babesa lortzeko, PSE-EE alderdiko Joxe Mari Villanuevarekin akordioa lortu beharko dute. Guztia erabakitzeke dago, beraz.



Tolosan, bozkatzera deituta zeuden herritarren %67a igaro zen hauteslekuetatik, 2015ean baino %3 gehiago. I.GARCIA

UDAL HAUTESKUNDEAK

	EAJ	EH BILDU	PSE-EE	PP	ELKARREKIN PODEMOS	ZURIAK	BALIOGABEAK
Alde Zaharra	1.399	1.704	294	50	226	23	19
Jubilatuak	1.029	607	112	63	68	18	9
Kultur etxea	706	651	95	30	43	7	9
Berazubi	622	520	98	22	59	15	15
Amarotz	262	294	88	14	47	10	3
Izaskun auzoa*	446	467	65	35	87	13	6
GUZTIRA	4.464	4.243	752	214	530	86	61

* Hor sartzen dira ere San Blas auzoko emaitzak

HAUTETSIK



OLATZ PEON
EAJ



BEGOÑA TOLOSA
EAJ



NEREA LETAMENDIA
EAJ



PATXI AMANTEGI
EAJ



JOSEBA ORMAZABAL
EAJ



EGOITZ SOROZABAL
EAJ



XABIER BALERDI
EAJ



IZARNE IGLESIAS
EAJ



ANDU MARTINEZ DE RITUERTO
EH BILDU



KRISTINA PELAEZ
EH BILDU



AITANA AMONDARAIN
EH BILDU



AITZOL GARCIA
EH BILDU



OLATZ ARTOLA
EH BILDU



ANDER FIGUERIDO
EH BILDU



GARBIÑE MARZOL
EH BILDU



XABIER MARTINEZ
EH BILDU



JOXE MARI VILLANUEVA
PSE-EE



Josu Artutxa-Iñigo Terradillos

12:00ak aldera eman zuen bozka paper eskolako hautetsontzian. Ondoren, Udaberri Dantza Taldeko ikastaroetako haurrek Leidor aretoan eskaini zuten emaldia ikustera gerturatu zen, pixka bat deskonektatu nahian. Behin hura bukatuta, ordu asko igaro zituen batzokian sartuta, hauteskunde behin-behineko jarraipena egiten, azken emaitzak eskuratu bitartean. Oso pozik eta herritarrei eskerrak emateko gogoz hartu zuen hitza Ataria Irratiko hauteskunde gaueko saio berezian.

Lehenik eta behin, zorionak lortutako emaitzengatik!

Eskerrik asko!

4.464 boto eskuratu dituzue, eta oso gertu izan duzue, bigarren indarra izan den EH Bildu, 4.249 botorekin.

Bai Tolosan, baita eskualdean ere, historikoki bi alderdi horiek nagusitzen dira. Horregatik, bien arteko lehia aurreikusten genuen, eta horrela izan da. Oso parean joan dira gauzak, baina uste dut berriz ere tolosarrek babestu gaituztela, eta oso pozik gaude.

Zeintzuk izan dira egunean zehar izandako sentsazioak?

Goizean behintzat, oso lasai

«Tolosarrek berriz ere babestu gaituzte»

OLATZ PEON EAJKO ALKATEGAIA

Jakitun zen, duela lau urteko emaitzak errepikatzea oso zaila izango zela. Hala ere, herritar gehienek aukeratu zuten alkategai jeltzalea.



JOSU ARTUTXA

egon naiz. Hautesleku desberdinetatik igaro naiz giroa ikusteko. Goizean goiz jende gutxi animatu dela esan didate, baina tantaka-tantaka jende gehiago hurbildu dela. Gainera, ez da aparteko zailtasunik izan, eta beraz, alde horretatik, gustura.

Parte hartzea areagotzea espero zenuen?

Zaila zen hori lortzea. Ona izan da, emaitza are demokratikoa goa izan delako. Guretzako, gainera, partaidetza geroz eta handiagoa izan, hobe. Hala ere, bagenekien duela lau urteko emaitzak errepikatzea ez zela erraza izango.

Hain zuzen, 2015eko hauteskundera begiratu gero, boto galera bat ikusten da zuen al-

detik, besteek gora egin duten bitartean. Zergatik uste duzue izan daitekeela?

Mila arrazoi egon litezke, eta beraz, irakurketa lasaiago bat egin beharko da. Orain duela lau urte jaso genuen babes, Tolosan inoiz alderdi batek jasotako babesik handiena izan zen; ez-ohiko egoera bat zen. Agian gure onera etorri gera, eta hori izan daiteke irakurketa bat. Ez dakit. Beste batzuk ere egon daitezke.

Hala ere, gustura zaudetela diozu. Gaur jasotako emaitzekin pozik, ezta?

Bai, oso pozik. Lan handia egin dugu. Lau urtetan egindako lanaren eskertza moduko bat jasotzen dugula sentitzen dugu. Tolosarren gehiengoak gu babestu gaituela ikusi dugu. Horrek, hurrengo lau urtetan ere lanean jarraitzeko indarra ematen digu.

Nolakoa izango da hurrengo legealdia, edo nolakoa izatea espero duzue?

Elkar ulertzeko moduko agintaldia izango da. Alderdi guztien programetako gai eta proposamen gehienak oso berdintsuak ziren, edo antzekotasun ugari dituzte. Horrek, aurrerantzean elkarrekin batera lan gehiago egiteko aukera emango digunaren ustea dut.

Bazkal ordurako, familiako kide guztiekin batera agertu zen, Andu Martínez de Rituerto, EH Bilduko alkategaia, Jubilatuetako hauteslekuan bozka ematera. «Lasai» zegoen, eta tolosarren iritzia jasotzeko ilusio handiarekin. Iluntzean, ordea, bestelakoa zen bere sentimendua. Pena zuen, herritar batzuek ez bozkatzegatik, eta beraz, boto gutxiren alde izanda, garaipena gertu izan zutelako. Hala ere, azken udal hauteskundeetakoak baino datu hobeak lortu zituzten, eta oposiziotik herria eraikitzen aritu ondoren, gobernu osatzeko ate guztiak zabalik ikusten ditu tolosarrak.

Nola baloratzen duzue lortutako emaitza?

Oso gertu geratu gara. Etengabe esan dut oso lan ona egin dugula, bai programa lantzen, baita osatutako taldearekin ere. Proiektua azaltzeko gai izan gara. Herritarrengan ilusioa piztu dugu. Orain, Tolosa ezkerretik gobernatzeko aukera egon daiteke. Ate guztiak irekita daude oraindik.

Duela lau urte baino 500 boto gehiago lortu dituzue. Zinegotzi bat gehiago. Zergatik lortu duzue igoera hori?

«Ate guztiak irekita daude oraindik»

ANDU MTNEZ DE RITUERTO EH BILDUKO ALKATEGAIA

2015eko datuen aldean, 500 boto gehiago lortu ditu EH Bilduk. Oso pozik daude, baina faktore sozial baten eragina nabarmentzen dute.



JOSU ARTUTXA

Udal taldeak oposizio oso eraikitzailea egin duela azpimarratu nuke. Etengabe proposamenak egiten aritu dira, oposiziotik herria eraikitzen, eta hori herritarrengana zabaldu da. Jende anitzaz eta berriaz sortutako hautagaitza genuen, eta horrek ilusio handia sortu du. Hala ere, bada beste faktore bat, hauteskunde guztietan ematen dena. Egoera sozial egonkorrean dagoen jendea joaten da bozkatzera, eta behar handien duen jendea oso gutxi joaten da. Horiek, gure boto emale potentzialak izan zitezkeen. Auzoen eta mahaien arabera, argi ikusten da zein den egoera. Batzuetan, ia %40ko abstentzioa egon da eta

beste batzuetan, berriz, %72ko parte hartzea. Hori, nire ustez, faktore hauskorra ezkerreko alderdiko kideontzat.

Gertu-gertutik jarraitu dugu kontaketa. Batzuetan, zuek joan zarete aurretik. Nola jarraitu duzue zuek? Urduritasunik izan duzue?

Oso lasai egon naiz egun osoan zehar. Azken finean, Tolosan oso argi dugu mahai bakoitzak joera bat duela, eta oso zaila zela aldaketa bat ematea. Argi dago, mahai batzuetan, EAJK boto asko jaso dituela, euren indargune nagusia izan direla, eta beraz, historikoki ezkerreko boto emaleen mahaiak izango balira, ilusio handiagoa izango genuke. Baina, oinak lurrean izan behar ditugu, eta egia esatea nahi baduzu, kontatzeko 7 mahai falta zirenean, jada jakitun nintzela oso zaila izango zela, eta gutxi gorabehera 200 botoren alde izango zela.

Olatzekin hitz egiteko aukerarik izan duzue?

Orain (atzo) genuen berarengana joan eta zoriontzeko asmoa. Pentsatu dut telefonoz deitzea baino egokiagoa litzakeela bertara joatea, hemendik (Zerkausitik) oso gertu dagoelako.



EH Bilduk agintea berretsi, eta boto gehien lortu ditu Ibarrran

Hirugarren legegintzaldia lortu du EH Bilduk; alkatetza lortu du 6 hautetsi eskuratuz, eta atzetik izan du EAJ lau hautetsirekin; PSE-EE sartu da udaletxean, hautetsi batekin

Rebeka Calvo Ibarra

EH Bildu koalizioak lortu ditu boto gehien Ibarrran. Botoa emateko ekubidea duten 3.168 ibarretatik 1.007k egin dute EH Bilduren aldeko hautua. Bigarren indarra EAJ izan da, 798 botorekin. 2015ean bezala, hortaz, EH Bilduk jaso du herritarren babes gehien, sei hautetsi lortuz. EAJk lau izango ditu, eta PSE-EEK bakarrik eskuratu du.

Boto kopuruari begira, azken udal hauteskundeetatik EH Bilduk gora egin du, duela lau urte 941 boto eskuratu baitzituen. EAJk duela lau urteko emaitza okertu egin du, 2015ean 882 lortu baitzituen. Duela lau urte PSE-EEK 153 boto eskuratu zituen eta PPK 42 boto.

IGOR ZAPIRAIN, ALKATE

Datuei erreparatuta Igor Zapirain izango da alkatea datozen lau urteetan eta pozik azaldu da. «Lehen balorazioa positiboa da. Hirugarren legegintzaldia gure esku egoteak esan nahi du orain arte lan ona egin dugula. Bide horretatik jarraitzeko asmoa dugu, herriari entzunaz eta herriarekin lan eginaz», esan du.

EH Bilduk 66 boto gehiago lortu ditu eta Zapirainen ustez igorera bi arrazoiengatik izan da, batez ere: «Orain arte egindako lan aipatuko nuke, alde batetik, eta, bestetik, aurkeztutako lantaldea nabarmenduko nuke; lantaldekoan herrigintzatik eta eragileetatik etorritako jendea dago, herri bizi bat egiteko apustua egin duen pertsonak dira eta jendeak hori saritu du». «Legegintzaldi berrirako ilusioa dugu eta lan egiteko gogoz gaude, eta orain arteko ildotik jarraitu nahi dugu, Ibarra bizi bat eraikiz. Gazteak herrian geratzeko apustua egin nahi dugu ere», gaineratu du.

EAJko Itziar Jauregik bere aldetik «herriak hitz egin du eta aurrera begiratzen jarraitu behar dugu», esan du. «Orain arte bezala lanean jarraituko dugu». Alderdi jeltzaleak 90 botoren galera izan du eta hori PSE-EE alderdia sartu delako dela uste du Jauregik. «Horrek eragina izan du. Dena den, gustura nago beste alderdi bat udalera sartuko delako eta hiru alderdi egongo garelako. Legegintzaldi honetan ere lan egiteko prest gaude», gaineratu du.

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
EH BILDU	1.007
EAJ	798
PSE-EE	191
ZURIAK	40
BALIOGABEAK	33



Txontxo lokalean hauteslekua jarri zuten, estreinakoz. R. CALVO


HAUTETSIAK



IGOR ZAPIRAIN
EH BILDU



NAGORE ZUBILLAGA
EH BILDU



LUIS LASA
EH BILDU



AGURTZANE ARRIBILLAGA
EH BILDU



AITOR JIMENEZ
EH BILDU



CRISTINA MARTINEZ
EH BILDU



ITZIAR JAUREGI
EAJ




JUAN LUIS CID
EAJ



RODRIGO VILAR
EAJ



JUAN MARIA CABALLERO
EAJ



FELIX JOAQUIN ASENSIO
PSE-EE

Alderdi sozialistak irabazi du Berrobin, 30 boto eskuratuta

218 boto zuri kontatu dituzte eta zenbatutako botoen %95era iritsi ez direnez, PSE-EEK irabazi du

I. Saizar Artola Berrobi

Zerrenda bakarra aurkeztu da Berrobin, PSE-EE eta bi ziren aukerak: alderdi sozialista bozkatu edo boto zuria eman. Boto zuriek, ordea, zenbatutako botoen %95era iritsi behar zuten, eta 218 botorekin, %87,9ra iritsi dira. Beraz, PSE-EEK irabazi du, 30 boto eskuratuta. Hori horrela, zazpi



Herriko eskolan botatu zuten. I. SAIZAR

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
PSE-EE	30
ZURIAK	218
BALIOGABEAK	10

zinegotziak alderdi sozialistakoa izango dira.

Parte hartzea jaitsi egin da azken hauteskundeetatik hona. Duela lau urte 275 lagunek bozkatu zuten, eta 258k eman zuten botoa, atzokoan, hau da, %58,11ko parte hartzea izan zen. Abstentzioa, berriz, %41,89koa izan da.

Silvia Moneok alkatetzan jarraituko du

Lau zinegotzi eskuratu ditu Denok Batek, eta beste zinegotzia Belauntzako Herritarrek lortu dute

I. Saizar Artola Belauntza

Hiru aukera ziren Belauntzan udal hauteskunderi begira: Denok Bat, Belauntza Herritarrek eta PSE-EE. Aurten, estreinakoz, zinegotziak zerrenda irekien bidez aukeratu dira, hau da, pertsona eman zaie botoa, alderdiei eman beharrean. Horrela, Denok Batek lau zinegotzi eskuratu ditu eta bat izango du Belauntza Herritarrek taldeak. Beraz, Silvia



KZ gunean eman zuten bozka. I. SAIZAR

Moneok jarraituko du alkateztan, 82 boto eskuratuta. PSE-EE zinegotzirik gabe geratu da, 3 botorekin.

Guztira, 147 lagunek bozkatu dute, azken hauteskundeetan baino %5,47 gutxiagok.



Amaia Azkuek jarraituko du alkatetzan beste lau urtez

EH Bilduk 6 hautetsi lortu ditu, eta Beasti Bizi taldeak 3 hautetsi izango ditu datozen lau urteetan; 398 boto lortu ditu koalizioak eta 254 boto jaso ditu Beasti Biziren zerrendak

I. Saizar Artola Berastegi

EH Bildu, Beasti Bizi eta PSE-EE alderdiak aurkeztu dira Berastegin. Jokoan zeuden 9 hautetsietatik 6 lortu ditu EH Bilduk eta beste hirurak Beasti Bizik eskuratu ditu. Beraz, gaur egungo alkateak, Amaia Azkuek, jarraituko du datozen lau urteetan.

676 bizilagunek bozkatu dute eta 398 boto EH Bildurentzat izan dira, 254 boto Beasti Bizirentzat eta 6 boto eskuratu ditu PSE-EEK. Boto zuriak 12 izan dira eta 6 boto baliogabe kontatu dituzte.

Duela lau urteko boto kopuruarekin alderatuta, EH Bilduk gora egin du; duela lau urte 325

boto jaso zituen, atzo baino 73 gutxiago. EAJk azken hauteskundeetan 3 hautetsi lortu zituen eta aurten ez da aurkeztu.

Berastegin nabarmen egin du gora parte hartzeak. Azken hauteskundeekin alderatuta %15,96 hazi da.

AZKUE, POZARREN

Amaia Azkue Berastegiko alkateak emaitzekin «oso-oso pozik» daudela azaldu du: «Duela lau urtetik boto kopuruek gora egin dute eta pozgarria da herritarrengandik jaso dugun babes», esan du. «Hauteskunde hauek esan digutena da, gure eredia herrian sendotu eta errotu dela». Orain sortuko duten udal gober-

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
EH BILDU	398
EAJ	254
PSE-EE	6
ZURIAK	12
BALIOGABEAK	6


nu berria pozarren ikusten du, «herritarrek osatuta delako, ez orain geunden bezala». Bestalde, Beasti Bizi taldeko Ainhoa Monteseke ere oso positibo» ikusi du emaitza. «Indarberrituta gaude, lanean hasteko irrikan; elkarlanean arituko gara udalean izango dugun beste indarrarekin», azaldu du. «Berastegi dugu helburu eta hori da gure hitza».



Eguerdian ilarak sortu ziren bozkatzeko, Berastegiko udaletxean. I. SAIZAR

Eneko Maiozek alkatetzan jarraituko du

EH Bilduk 76 boto jaso ditu Orexan; %86,37ko parte hartzea izan dute



Egun osoko lana izan zuten. R. CALVO

I. Saizar Artola Oresa

EH Bildu bakarrik aurkeztu da udal hauteskundeetara eta herritarrek babes erakutsi diote Eneko Maioz buru zuen zerrendari. Botoa emateko eskubidea duten 76 bizilagunetatik 75ek eman diote botoa, 5 hautetsi lortuz.

Boto zuri bat egon da eta %86,37ko parte hartzea izan dute. Duela zortzi urte Bildurekin eta duela lau urte EHBildurekin, Eneko Maioz izan dute Oresa alkate, eta datorren agintaldian ere berak jarraituko du Gurutze Etzezabal, Joakin Iturrioz, Ainhoa Nazabal eta Gari-itx Balerdirekin batera.

Joxe Ramon Eizagirre, alkatetzara

117 boto eskuratu ditu EH Bilduk eta 77 boto jaso ditu Bide Berriak taldeak



Udalean jarri zuten mahaia. I. SAIZAR

I. Saizar Artola Leaburu-Txarama

EH Bildu eta Bide Berriak aurkeztu dira Leaburu-Txaraman. Jokoan zeuden 7 hautetsietatik 4 EH Bildurentzat izan dira, 117 botorekin eta beste 3rak Bide Berriak taldeak eskuratu ditu, 77 botorekin. 206 lagunek bozkatu zuten, %75,46ko partaidetzara iritsita; 8 boto zuri kontatu dituzte eta 4 boto baliogabe. Beraz, Joxe Ramon Eizagirre izango da alkate berria.

2015ean garaipena estuagoa izan zen EH Bildurentzat, izan ere, 109 boto eskuratu zituen koalizioak, eta 94 boto jaso zituen Bide Berriak taldeak.

Edurne Gartzia hartuko du alkate makila

45 herritarrek EH Bilduko zerrendako kideren bat bozkatu dute



Udaletxean bozkatu zuten. I. SAIZAR

I. Saizar Artola Gaztelu

EH Bildu soilik aurkeztu da udal hauteskundeetara Gaztelun. Erroldako 117 bizilagunetatik 80 joan dira bozkatzera, eta 45 herritarrek bozkatu dute EH Bilduko zerrendako kideren bat. Izan ere, Gaztelun pertsonak bozkatu dituzte. Edurne Gartzia da zerrendaburu, eta boto gehien jaso ez baditu ere bera izango da alkate. 22 boto zuri eta 13 boto baliogabe zenbatu dituzte.

Duela lau urteko udal hauteskundeetan bi alderdi aurkeztu ziren, EH Bildu eta Udaberri taldea. Aurten, ordea, EH Bildu soilik aurkeztu denez, bost eserlekuak koalizioak eskuratu ditu.

Iñaki Azpiroz izango da alkate Lizartzan

296 boto jaso ditu EH Bilduk, 15 boto zuri eta 6 boto baliogabe



Herritar bat, bozkatzen. R. CALVO

I. Saizar Artola Lizartza

EH Bilduk eta EQUOk aurkeztu dituzte zerrendak Lizartzan, eta herritarrek EH Bildu babestu dute; 7 hautetsiak lortuta. 296 boto jaso ditu koalizio abertzaleak eta 33 boto izan dira EQUorentzat. 15 boto zuri eta 6 boto baliogabe jaso dituzte. Beraz, Iñaki Azpiroz izango da alkate

Gora egin du boto-emateen kopuruak. Duela lau urte, 317 lagunek bozkatu zuten, eta aurten, 350 bizilagun joan dira botatzera. Azken agintaldian ere EH Bildurena izan da udal gobernu, eta datozen lau urteetan ere zazpi zinegotziak koalizio abertzalearenak izango dira.

Oihana Amundarain, alkate berria

Elduaingo bost zinegotziak EH Bilduk izango ditu; 114 lagunek bozkatu dute



Mahaiko kideak, jendearen zain. I. SAIZAR

I. Saizar Artola Elduain

EH Bildu bakarrik aurkeztu da Elduainen, eta herri txikietan egin ohi denez, erroldako 184 lagunek, pertsonak aukeratu dituzte zinegotzi izateko. Zerrendaburua Oihana Amundarain da, baina Eider Mujikak jaso ditu boto gehien, 81 guztira; Amundarainek 70 boto, Joel Wepsieckek 69 boto, Leire Talaverak 51 boto eta Alain Barandiaranek 50 boto. Boto zuriak 19 izan dira eta 3 baliogabe kontatu dituzte.

Azken hauteskundeetatik boto-emateen kopurua %4,8 igo da. Azken hauteskundeetan, 114 herritar izan dira bozkatzera joan direnak.



Alegian EH Bilduko Arantxa Irazustak lortu du alkatetza

60 botoren aldearekin EH Bilduko Arantxa Irazustaren taldearentzat izango da alkatetza; Regina Sorarrainen Aurrera Alegia taldea, lehen aldiz, hiru zinegotzirekin sartuko da

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Arantxa Irazusta Etxeberria izango da datozen lau urteetan Alegiako alkatea. EH Bilduko zerrendaburuak, zortzi urtez alkate izan den Unai Iraola alderdikidearen eskutik jasoko du aginte makila.

EH Bilduk 481 boto eskuratu ditu, eta Aurrera Alegia taldeak, berriz, 421. 60 botoren aldea atera dio Irazustak, Regina Sorarrain zerrendaburu duen taldeari. Alegiarren %73,55ak parte hartu du udal hauteskundeetan.

Aurrera Alegia lehen aldiz aurkeztu da udal hauteskundeetara. EH Bilduk, berriz, botoak irabazi ditu. Duela lau urte baino 25 boto gehiago jaso. PSE-EE alderdiak jaitziera izan du Alegian, 14 boto eskuratu. Duela lau urte baino 10 gutxiago.

IRAZUSTA <<ILUSIOZ>>

Xanpain fresko artean gustura azaldu da datozen lau urteetan alkate izango den Arantxa Irazusta, baina era berean, urduri: «Bagenekien justu ibiliko ginela, eta diferentzia handiegirik ez genuela izango, baina bost zinegotzi eta lau izango ginela pentsatzen nuen». Konforme geratu dela emaitzarekin dio Irazustak, eta «inguruko jende guzti honek merezi zuen emaitza hau. Lehendik zeuden zinegotziek, oraingo nire taldeak, eta Bilduren inguruan mugitzen diren guztiak merezi dute», esan du.

Egunero-egunero izan duela laguntza azpimarratu nahi izan du, herritarrei eskerrak emanez. «Ez dakit bihurtik aurrera zer tokatzen den, baina lanean eta ikasten jarraitzea izango da», dio ospakizunen erdian.

Ilusioz ekingo dio etapa berriari: «Ea lau urteetan programan jarri ditugun asmo guztiak eta gehiago gauzatzeko denbora ematen dugun».

SORARRAIN <<GUSTURA>>

Aurrera Alegiak lehen aldiz parte hartu du Alegiako udal hauteskundeetan, eta Sorarrain gustura geratu da: «Lehen aldiz aur-



Alegian udaletxean bozkatu zuten herritarrek. %26,46ko abstentzioa izan da udal hauteskundeetan. E. MAIZ



«Ea lau urteetan programan jarri ditugun asmo guztiak eta gehiago gauzatzeko denbora dugun»

ARANTXA IRAZUSTA ETXEBERRIA ALKATEGAIA

keztu gara, eta uste dut oso emaitza onak lortu ditugula» azpimarratu du Sorarrainek. «Oso gustura gaude herriak emandako erantzunarekin», dio, eta balorazio positiboa egin dute Aurrera Alegiakoek. Beraien izenak dio-

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
EH BILDU	481
AURRERA ALEGIA	421
PSE-EE	14
ZURIAK	9
BALIOGABEAK	9

en moduan, beste behin azpimarratu du Alegiaren alde lan egingo dutela. Gogoz sartuko dira udalean, eta beraien programan esandakoak aurrera ateratzen saiatuko direla adierazi du, EH Bildurekin batera lan egingez.

Abaltzisketan hirugarrenez, Jon Zubizarreta

Talde gaztea izango du alboan Zubizarretak, beste lau urtez, udalean



177 boto jaso zituzten. E. MAIZ

E. Maiz Abaltzisketa

Jon Zubizarreta Aldaia prest da aginte makila eskuan duela hirugarren agintaldiari ekiteko. 152 boto eskuratu ditu Herrigintza taldeak. Baliogabeak 5 boto, eta Zuriak 20 izan dira.

Adur Gorostidi Urkia, Mikel Senperena Irastorza, Maialen Senperena Iztueta, Alexandra Eguez Irazusta, Aitor Otamendi Jauregi eta Unai Garmendia Urkiak hartuko dute zinegotzi kargua, Abaltzisketa herriaren alde lan egiteko prest agertu dira. %30,04ko abstentzioa izan da Abaltzisketan. Eta duela lau urteko Herritarrak taldeak baino 12 boto gehiago jaso dituzte.

Albiztur bizituz herriaren alde lan egiteko prest

Zerrenda osatua dute, baina ez dakite nork hartu duen aginte makila



%34,50eko abstentzioa izan da. I.U.

E. Maiz Albiztur

Duela lau urtekoa ez da gertatu Albizturren, hau da, udal hauteskundeetarako zerrenda osatu dute. Iñaki Orbegozo Arrospeide da zerrendan lehena, baina, nahiz eta hauteskundeak irabazi, oraindik ez dakite karguak nola banatuko dituzten eta nor izango den alkate. 145 boto lortu ditu taldeak, 2 PSE-EEK, Zuriak 2 eta baliogabea 1 izan da.

Orbegozorekin batera hauek osatzen dute zerrenda: Mikel Galarza Arrue, Alazne Urkizu Galarra, Aingeru Galarraga Barandiaran, Aitziber Orbegozo Arrospeide, Larraitz Ezeiza Artola eta Unai Dorronsoro Olarra.



EH Bilduko Iñaki Amundarainek erraz lortu du alkatetzari eustea

EH Bilduk 351 boto lortu ditu, eta Ainhoa Zuriarrainen Amezketaren Etorkizun taldeak, 167. Hirugarren agintaldia beteko du Amundarainek, eta bost zinegotzi izango dituzte

E. Maiz Amezketaren

EH Bildu alderdiko Iñaki Amundarainek hirugarren aldiz irabazi ditu udal hauteskundeak. 351 boto eskuratuta, bost zinegotzi izango dituzte. Aldiz, bi zinegotzi eskuratu ditu Ainhoa Zuriarrainen Amezketaren Etorkizun taldeak, 167 botorekin.

Amezketarren %75,75ak bozkatu du, hau da, 534 izan dira kultur etxera bozka ematera joan direnak. EH Bilduk gora egin du, duela lau urte baino 43 boto gehiago eskuratuz.

Emaitzak jakin bezain pronto «oso gustura» agertu da Iñaki Amundarain: «Esperantza baren, baina baita urduritasuna

ere. Jendeari eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen». Nahiz eta hirugarren agintaldiari aurre egin beharko dion, lanerako gogoz dagoela esan du: «Asko ikasten da, eta ez daukat damurik. Lanerako gogoz eta ilusio han-

«Oso gustura nago. Jendeari eskerrak ematea baino ez zaigu geratzen»

IÑAKI AMUNDARAIN ALKATEA

diarekin nago. Talde berria da, eta guztiak lanerako gogoz daude, eta horrelakoetan ez dago ezetz esaterik».

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
EH BILDU	351
AMEZKETA ETORKIZUN	167
PSE-EE	0
ZURIAK	11
BALIOGABEAK	1

Ainhoa Zuriarrain Amezketaren Etorkizun taldeko hautagaiak ere eskerrak eman nahi izan dizkie beraien konfiantza agertu duten herritar guztiei. Bi zinegotzirekin lanerako prest agertu da: «Saiakera egin dugu, eta uste dut programa polita prestatu dugula».



Kultur etxean eman zuten botoa amezketarek. E. MAIZ

Altzoko aginte makila Txomin Rezolarentzat

EH Bilduk 205 boto jaso ditu Altzon, eta zazpi zinegotziak beraienak dira



%28,87ko abstentzioa izan da. E. MAIZ

E. Maiz Altzo

Txomin Rezola izango da datozen lau urteetan EH Bilduko Altzoko alkatea. Joseba Elduaiezen lekua hartuko du Rezola alderdikideak. Guztira 205 boto jaso ditu.

%71,13ko parte hartzea izan da Altzon. 17 boto zuri eta 12 baliogabe jaso dituzte. Duela lau urteko emaitzekin alderatuta gora egin du koalizioak, 36 boto gehiago eskuratuz.

Altzon zinegotzi kargua hartuko dutenak Lorena Uriarte, Josu Astrain, Mari Karmen Murua, Arantxa Menendez, Joseba Elduaiezen eta Nerea Elola izango dira.

Baliarrainen ez dakite alkatea nor izango den

Bost herritarrekin osatutako Auzolanean Bizirik zerrenda da



%70eko partaidetza izan da. E. MAIZ

E. Maiz Baliarrain

Maria Victoria Garmendia Oyarbide, Juan Maria Iturrioz Goñi, Jaione Olano Echeverria, Andoni Olano Manzano eta Josu Ozaita Azpiroz dira Auzolanean Bizirik zerrendako kideak. Beraiek izango dira datozen lau urteetan udalean kargua izango dutenak. Alkatea zein izango den, ordea, datozen egunetan erabakiko dute.

62 boto jaso dituzte, eta zuri 1. Pertsonak bozkatzeko dituzte eta 57 boto izan dira Jaione Olanorentzat eta 56, Andoni Olanorentzat. Atzetik, Josu Ozaitak 46, Maria Victoria Garmendiak 45 eta Juan Mari Iturriozek, 43.

EH Bilduko Agurtzane Zelaia, alkate

Bidania-Goiatzen 169 boto jaso ditu EH Bilduk, eta 110 Garai Berriak



Bi boto zuri eta baliogabe bat. ATARIA

E. Maiz Bidania-Goiatz

Joxe Erramun Goikoetxeak pasako dio testigua Bidania-Goiatzen alderdikide duen Agurtzane Zelaia alkate berriari. Bidania-Goiatzen 169 boto lortu ditu EH Bilduk eta, aldiz, 110 Garai Berriak taldeak.

Duela lau urterekin alderatuta, botoak galdu ditu EH Bilduk eta irabazi egin ditu Garai Berriak taldeak. Zelaia buru duen taldeak sei boto gutxiago jaso ditu, eta aldiz, lau boto gehiago lortu ditu oposizioak.

Lau zinegotzi izango ditu EH Bilduk eta hiru Garai Berriak taldeak. %73,22ko parte hartzea izan da.

Ikaztegieta Bakarne Otegi erreplikatu du

150 boto eskuratu ditu EH Bilduk, eta 115 Elosegiren EAJk



%75eko partaidetza izan da. E. MAIZ

E. Maiz Ikaztegieta

150 boto jasota alkatetzari eutsi dio Bakarne Otegi EH Bilduko alkateak, Ikaztegieta. Duela lau urte baino 20 boto gehiago eskuratu ditu EH Bilduk. EAJ alderdiak ere gora egin du, duela lau urte baino bost boto gehiago jaso.

Ikaztegieta %75ak egin zuen udaletxerako bidea, duela lau urte baino % 5,79 gehiagok. Baliogabeak 5 boto izan dira.

EH Bilduk lau zinegotzi izango ditu, Otegiarekin batera, Adur Ibarguren, Manex Saez de Eguilaz eta Beñat Diaz. EAJk Anton Elozegi, Patxi Ulanga eta Belen Plaza.

Orendainen Migel Angel Arsuaga alkate

EH Bilduk 90 boto jaso ditu; zuriak 6 eta baliogabeak 30



% 80,77ko parte hartzea. E. MAIZ

E. Maiz Orendain

Orendaingo EH Bilduko Migel Angel Arsuaga izango da hurrengo agintaldiko alkatea. Azken zortzi urteetan alkate izan den Gorka Egiaren eskutik jaso du alkate makila.

Miguel Angel Arsuagarekin batera, Andoni Egia, Xabi Lekue, Tamara Rodriguez eta Eneitz Olano izango dira zinegotzi kargua hartuko duten zerrenda kideak. Duela lau urte baino zortzi boto gehiago jaso ditu EH Bilduk.

Boto zuriak 30 izan dira, eta baliogabeak, berriz, 6. Orendaingo abstentzioa, %19,23koa izan da.



Aldaketa gertatu da Amasa-Villabonan

EH Bildu izan da bozkatuena eta zazpi zinegotzi eskuratu ditu; sei zinegotzitik bostera jaitsi da EAJ

Jon Miranda Amasa-Villabona

Beatriz Unzue izango da Amasa-Villabonan alkate datozen lau urteetan. EH Bilduko zerrendak eskuratu zituen, atzo, boto gehien. Guztira 1.517, 2015ean baino 388 boto gehiago. Guztira, koalizio abertzaleak agintaldi berrian zazpi zinegotzi izango ditu. Unzuekin batera, orain arte zinegotzi izandako Xabat Laborde eta Arantxa Lopez arituko dira, eta Gorka Kamio, Amagoia Agirre, Ander Goikoetxea eta Garazi Bengoetxea izango dira EH Bilduk izango dituen zinegotzi berriak.

Unzuek emaitzen lehen balorazioa egin nahi izan du: «Oso oso pozik gaude eta herriari eskerrak eman behar dizkiogu, bihotzez». Aurrerantzean alkate izango den Unzueren ustetan, Amasa-Villabonako herrian aldaketa behar zen eta koalizio abertzaleak egin duen lanari egotzi dio emaitza ona: «Lan asko egin dugu kanpaina eta horrela jarraituko dugu. Ez diegu hutsik egingo. Gure lana, elkarlanean eta parte hartzean oinarrituko da. Ez ditugu erabakiak bulego itxi batean hartuko».

JELTZALEAK ALKATETZA GALDU

Azken agintaldian EAJk izan du alkatetza Amasa-Villabonan. Sei zinegotzi izan ditu alderdi jeltzaleak, EH Bilduk bezainbeste, baina alderdi sozialistaren babesarekin udal gobernua osatu zuen duela lau urte. Patxi Agirre alderdi jeltzaleak Amasa-Villabonako Udalean izango duen bost zinegotzietako bat izango da eta lehen balorazioa egin du behin emaitzak ezagutu: «Ez ditugu espero genituen emaitzak lortu, baina nahikoa kontentu gaude gure botoa kontsolidatu egin delako». Agirrerren esanetan, ez du uste EAJren galera izan denik, EH Bilduren hazkundera baizik. «Beste batzuk egin ez duten bezala, oposizio garbi eta leiala egingo dugu eta prest gaude gai estrategikoetan adostasunetara iristeko EH Bildurekin. Batera eta elkarlanean aritzeko prest gaude».

Alderdi sozialistak bere zinegotzia mantendu du eta hirugarren legealdia izango du Maria Luisa Arija udalean. Elkarrekin Podemosek, lehen aldiz aurkeztu zuen hautagaitza atzoko udal hauteskundeetan eta ez du ordekaritzarik lortu.

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
EH BILDU	1.517
EAJ	1.058
PSE-EE	199
ELKARREKIN PODEMOS	149
ZURIAK	49
BALIOGABEAK	22



Olaederra kiroldegiko kantxan bozkatu ahal izan zuten atzo herritarrek. J.M.

HAUTETSIK



BEATRIZ UNZUE
EH BILDU



XABAT LABORDE
EH BILDU



ARANTXA LOPEZ
EH BILDU



GORKA KAMIO
EH BILDU



AMAGOIA AGIRRE
EH BILDU



ANDER GOIKOETXEA
EH BILDU



GARAZI BENGOTXEA
EH BILDU



MAITE IZAGIRRE
EAJ



PATXI AGIRRE
EAJ



AMAIA IRAZUSTA
EAJ



JUAN MARI IPARRAGIRRE
EAJ



IONI IZAGIRRE
EAJ



MARIA LUISA ARIJA
PSE-EE

Maria Pilar Legarra izango da Asteasuko alkatea; 499 botorekin, zazpi zinegotzi lortu dituzte

Irati Urdalleta Asteasu

Asteasu Batuz taldea izan da garaile Asteasun. 499 boto jasota, zazpi zinegotzi izango dituzte datozen lau urteetan. EAJk, aldiz, 158 boto eskuratu ditu eta bi zinegotzi edukiko dituzte. PSE-EE zinegotzirik gabe geratu da 19 botorekin. Gainera, 30 boto zuri eta hiru baliogabe ere egon dira. Emaitza horiekin, Maria Pilar Legarra izango da Asteasuko alkatea hurrengo lau urteetan.

Partaidetzari dagokionez, %61,24koa izan da, hau da, duela lau urte baino %1,35 baxuagoa.

Asteasu Batuz nagusitu zaio EAJri

Orduan ere hiru aukera zituzten asteasuarrak, eta Asteasu Batuz taldea izan zen garaile, 468 botorekin, zazpi zinegotzi lortuta. EAJk, 184 botorekin, bi zinegotzi izan zituen. PSE-EEK, berriz, hamabi boto jaso zituen zinegotzirik gabe geratu zen.

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
ASTEASU BATUZ	499
EAJ	158
PSE-EE	19
ZURIAK	30
BALIOGABEAK	3



Partaidetza %1,35 jaitsi da. J.M.

Josu Amilibiaren hirugarren agintaldia

EH Bildu izan da garaile Adunan, 230 boto eskuratuta; Josu Amilibiak jarraituko du alkate

I.U. Aduna

EH Bilduk soilik aurkeztu du zerrenda Adunan. Guztira, 230 boto eskuratu dituzte, hau da, boto guztien %93,11. Horiez gain, hamazazpi boto zuri egon dira baita hamahiru baliogabe ere.

Emaitza horiekin, Josu Amilibiak jarraituko du alkatetzan eta koalizio abertzalearenak izango dira udaleko zazpi zinegotziak ere.



Kultur aretoan bozkatu dute. J.M.

Partaidetza %73,04koa izan da eta %2,83 egin du gora azken udal hauteskundeetakoarekin alderatuta. Orduan ere zazpi zinegotziak EH Bilduk lortu zituen, 205 botorekin. PPK, berriz, zortzi boto lortu zituen.



EH Bilduk jarraituko du alkatez, gehiengo osoa eskuratu ondoren

Zizurkilen sei zinegotzi lortu ditu koalizio abertzaleak, duela lau urte bezainbeste, eta ordezkaritza jaitsi du EAJk, lautik hirura; PSE-EEK bikoiztu egin du zinegotzi kopurua

J. M. Zizurkil

Aldaketarik ez da izango Zizurkilen, nahiz eta aurpegi berri batek gidatuko duen udala datozen lau urteetan. Iker Urruzola EH Bilduko hautagaia izango Zizurkilgo alkatea, 2023ra bitarte. Gehiengo absolutua lortu du koalizio abertzaleak, eta «pozik» agertu da Urruzola: «Aurreko udal taldeak egindako lanaren isla da emaitza, eta baita herri mailan egiten duen lanaren emaitza ere. Botoen kopuruak nabarmen egin du gora».

Urruzolarekin batera, zinegotzi izango dira Zizurkilen EH Bilduko Maite Amenabar, Iban Li-

zarraga, Matti Navas, orain arteko alkate Joxe Mari Luengo eta Xabier Pellejero.

EAJk hiru zinegotzi eskuratu ditu Zizurkilen. Trini Altimasberetz jeltzalea izango da oposizio burua eta, berekin batera, udal ordezkari izango dira Marian Lazkano, orain arteko zinegotzi jeltzalea, eta Elixabete Bello. Lazkanoren hitzetan, uste baino boto gutxiago eskuratu ditu EAJk. «Gehiago espero genuen, alderdi sozialistak zinegotzi bat igo du eta guk bat galdu. Irabazleei zorionak ematea besterik ez zaigu geratzen. Oposiziotik ere Zizurkilen alde egin daiteke eta horretan jardungo dugu».

SOZIALISTAK GORA

Pozik agertu da Josean Sanchez PSE-EEko alkategaia, duela lau urteko emaitzak hobetu baititu. Alderdi sozialistak zuen zinegotzi bakarra zen orain arte Sanchez, eta orain, ondoan izango du beste zinegotzi bat: Conchi Fernandez. «Geure buruari jarri

genion helburua bete dugu», esan du Sanchezek. Lehen irakurketa egin nahi izan du zinegotzi sozialistak: «Lau urteotan lan egin dut, eta ikuspuntu sozialistatik Zizurkilen zer esana badugula uste dut. Egindako lana ikusi dute herritarrek eta pozik nago horregatik».

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
EH BILDU	825
EAJ	388
PSE-EE	267
ZURIAK	29
BALIOGABEAK	13

HAUTETSIAK



IKER URRUZOLA
EH BILDU

MAITE AMENABAR
EH BILDU

IBAN LIZARRAGA
EH BILDU

MATTI NAVAS
EH BILDU

JOXE MARI LUENGO
EH BILDU

XABIER PELLEJERO
EH BILDU



TRINI ALTIMASBEREZ
EAJ



MARIAN LAZKANO
EAJ



ELIXABETE BELLO
EAJ



JOSEAN SANCHEZ
PSE-EE



CONCHI FERNANDEZ
PSE-EE



Pedro Mari Otaño eskolan jarri zituzten hautetsontziak Zizurkilen. J.M.

Lortutako 95 boto zuriak ez dira nahikoa izan, PSE-EEren hautagaitzaren alkatez sailhesteko

I. U. Larraul

PSE-EE soilik aurkeztu da udal hauteskundeetara Larraulen, eta 19 botorekin lortu dute udalean sartzeko behar zituzten botoen %5 baino gehiago. Hain zuzen ere, botoen %16,66 eskuratu dituzte.

Hainbat herritarrek boto zuria emateko deia egin zuten, esanez, PSE-EEko zerrendan ez dagoela inor herrian bizi denik. Horrela, 95 boto zuri eduki badituzte ere, ez dira nahikoa. Izan ere, boto guztien %95 edo gehiago zuriak izatea behar zuten, baina boto

Alderdi sozialistak, 19 botorekin, 7 zinegotzi



Larraular bat botoa ematen. J.M.

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
PSE-EE	19
ZURIAK	95
BALIOGABEAK	1

guztien %83,33 soilik lortu dituzte. Gainera, boto baliogabe bat ere egon da.

Emaitza horiekin, PSE-EEko Jose Antonio Rodriguezek izango du aukera, Larraulgo alkate izateko.

Parte hartzea %61,83koa izan da, hau da, duela lau urteko hauteskundeetako baino %9,53 altuagoa. Hauteskunde haietan ere lortu zuen PSE-EEK eserleku bat, hamabi boto izan zituztelako. Ordukoan, Larraulgo Herritarrek taldeak irabazi zituen hauteskundeak, 69 botorekin, sei zinegotzi lortuta.

Aitor Zubillaga Hernialden alkate berria

134 boto eskuratuta, Hernialdeko Herritarrek taldeko Aitor Zubillaga izango da alkate

I. U. Hernialde

Herniope taldeak soilik aurkeztu du hautagaitza Hernialden, eta beraientzat izan dira udaleko zazpi zinegotziak. Horrela, Aitor Zubillaga izango da alkatea.

Hain zuzen ere, 134 boto lortu dituzte, hau da, boto guztien %88,74. Boto zuriak, berriz, 17 izan dira eta baliogabeak hiru. Abstentzioari dagokionez, %35,02koa izan da. Parte hartze-



Parte hartzea %10,26 igo da. I.U.

ak %10,26 egin du gora, duela lau urteko udal hauteskundeekin alderatuta. Orduan, Hernialdeko Herritarrek taldea soilik aurkeztu zen eta, 128 botorekin, beraientzat izan ziren Hernialdeko zazpi zinegotziak.



EH Bilduk irabazi du, alde txikiarekin

Anoetan koalizio abertzaleak sei zinegotzi eskuratu ditu, EAJk bost eta PSE-EEk bakar bat ere ez

Jon Miranda Anoeta

Anoetan, 2.000 biztanleko muga gainditu dute eta inoiz baino zinegotzi gehiago hautatu behar izan zituzten atzo herritarrek. Guztira, 11 zinegotzi izango dira aurrerantzean Anoetako Udalean eta gehiengo osoa izango du EH Bilduk. Hirugarren agintaldia izango du alkate gisa Pello Estanga koalizioako zerrendaburuak. Ondoan izango dituen bost zinegotziak, berriz, berriak izango dira.

«Balorazio oso positiboa egin dugu, baina gazi-goza, zazpigarren zinegotzia lortzeko berderatzi botoren faltan geratu garelako», aipatu du Estangak. Botoetan duela lau urte baino gehiago atera ditu EH Bilduk eta EAJrekiko aldea ere handitu egin duela aipatu du egungo alkateak. «Sei edo zazpi zinegotzi izan aldea badago, eguneroko lanerako geroz eta jende gehiago izan hobea izatean baita».

EAJ izan da bigarren alderdi bozkatuena Anoetan. Rafa Uribarren, Agurtzane Nuñez, Aitzol Arozena eta Nuria Carbonell izango dira zinegotzi jeltzaleak Anoetan. Duela lau urte lau zine-

gotzi zituen EAJk eta emaitza hobetzea lortu du, bost zinegotzi eskuratuta. Rafa Uribarren alderdi jeltzaleko zerrendaburuaren esanetan, «aurrerapausoa» eman du EAJk. «Ilusioa genuen alkatetza lortzeko, baina Anoetako soziologia ezagututa, EH Bilduk irabaztea pentsatzekoa zen». Koalizio abertzalea zoriondu du Uribarrenek eta esan du, beren programa aurrera eramateko lan egingo dutela udalean: «Kontrol lana egingo dugu oposiziotik eta gure iritzia emango ditugu udalean. Herritarrek unero informatuta edukiko ditugu».

PSE-EE da hirugarren alderdi bozkatuena Anoetan 40 boto eskuratu ditu eta ez du ordezkartzarik lortu Anoetako Udalean. Hain zuzen Jose Luis Vilanovak ez du eserlekurik lotu.

Parte hartzeari begiratuta, atzo udal hauteskundeetan 1.088 herritarrek eman zuten botoa Anoetan udal hauteskundeetan. Duela lau urteko datuekin alderatuta, parte hartzeak gora egin du %1,5. Anoetako Herri Ikastolan jarri zituzten atzo hautetsontziak eta bertara gerturatu ziren herritarrek botoa ematera.

UDAL HAUTESKUNDEAK

ALDERDIA	BOTOAK
EH BILDU	585
EAJ	423
PSE-EE	40
ZURIAK	22
BALIOGABEAK	18


HAUTETSIAK



PELLO ESTANGA
EH BILDU



SAIOA TOLOSA
EH BILDU



AMAIA URKOLA
EH BILDU



AITZOL AROZENA
EH BILDU



ESTHER IZTUETA
EH BILDU



JOKIN TOLOSA
EH BILDU



RAFA URIBARREN
EAJ



AGURTZANE NUÑEZ
EAJ



AITZOL AROZENA
EAJ



NURIA CARBONELL
EAJ



JAIME PEON
EAJ



Anoetako Herri Ikastolan eman zuten botoa anoetarrek. IRATI URDALLETA

Iruran EH Bildura itzuli da alkatetzara, EAJri aldea aterata

Gorka Murua izango da Irurako alkatea, hauteskundeak EH Bilduk irabazita

Irati Urdalleta Irurra

EH Bilduk berreskuratu du Irurako alkatetza, 458 boto lortuta, bost zinegotzi izango dituztelako. EAJk, berriz, 350 botorekin, lau zinegotzi edukiko ditu. Bestalde, PSE-EEk 39 boto eduki ditu.

Gorka Murua EH Bilduko Irurako hautagaiak esan du gustura



Irurar bat herri eskolan bozkatzen. I.U.

daudela herritarrek eman dieten babesarekin eta eskerrak eman nahi izan dizkie. Ana Jesus Leunda EAJko hautagaiak, berriz, oposiziotik jarraituko dutela lanean dio. «Pozik gaude egindako lanarekin, baina herritarrek aldaketa nahi badute aldaketa egongo da», gaineratu du.

Partaidetzak %0,73 egin du gora duela lau urteko udal hauteskundeekin alderatuta. Orduan, EAJk lortu zituen bost zinegotzi, 419 botorekin. EH Bildurentzat, berriz, lau zinegotzi izan ziren 315 botorekin eta PSE-EEk 22 boto izan zituen.

Inaki Irazabalbeitia alkate berria Alkizan

Alkizako Abertzale ezkertiarra taldeak irabazi ditu hauteskundeak, 130 boto lortuta

I.U. Alkiza

Alkizako Abertzale Ezkertiarra taldeak irabazi ditu udal hauteskundeak Alkizan. Guztira, 130 boto izan dituzte, hau da, boto guztien %76,02. Horrela, berriantzat izango dira udaleko zazpi zinegotziak. PSE-EEk lau boto jaso ditu, 37 boto zuri egon dira eta baliogabeak zazpi. Emaitza horiekin, Inaki Irazabalbeitia izango da alkate.



Don Juanenako bozkalekua. I.M.

Parte hartzea %69koa izan da, hau da, duela lau urteko hauteskundeetako baino %5,74 altuagoa. Emaitzei dagokienez, Alkizako Abertzale Ezkertiarra taldeak 145 boto izan zituzten eta PPK zortzi.



Abstentzioa nabarmen jaitsi, eta Orain Errepublikak da bozkatuena

Orain Errepublikak eta EAJk 4.000 boto irabazi dituzte, 2014. urteko bozetatik. PSE-EE eta Podemosek ere 1.000 boto gehiago eskuratu dituzte; PP izan da galdu duen bakarra.

Erredakzioa

Ia %60koa izan zen abstentzioa 2014ko Europako Hauteskundeetan, Tolosaldean. Bada, udal eta foru hauteskundeetan egun berean bozkatu beharrak, baita eskuin muturraren gorakadaren mamuak ere, eragina izan dute emaitzetan, ia %70era igo baita parte hartzea eskualdean. Duela lau urteko emaitzen irudi orokorra, dena den, mantendu egin da, ia alderdi guztiek egin baitute gora.

Orain Errepublika - EH Bildu izan da indar bozkatuena, orokorrean, ia 10.750 boto jasota. Hiru herritan soilik -Abaltzisketan, Albizturren eta Tolosan- izan da nagusi Eusko Alderdi Jeltzalea. Hain zuzen, Abaltzisketan eta Tolosan EH Bilduk jaso zituen boto kopuru gehien 2014ko bo-

zetan. Bi alderdiek 4.000 bozka irabazi dituzte 2014tik hona.

PSE-EEK eta Elkarrekin Podemosek ere gora egin dute boto kopuruan. 1.200 boto gehiago lortu ditu, Espainian nagusi izan den alderdi sozialistak. Podemosek, aldiz, ia 1.000 boto gehiago lortu ditu, 1.657 orotara.

GIPUZKOANEAJ

Gipuzkoa mailan, berriz, EAJ izan da garaile, 112.000 bototik gora lortuta. Orain Errepublikak 3.200 boto gutxiago lortu ditu. 66.702 botorekin hirugarren indarra izan da PSOE, eta 37.324 lortu ditu Podemosek.

Eserleku banaketari erreparatu, Orain Errepublika koalizioak hiru eserleku lortu ditu -horietatik bat izango da EH Bildurena-, eta bat EAJk. Espainian PSOE izan da garaile.



Tolosan, agerian izan dira Europarako boto-paperak. Irudian, kultur etxeko hauteslekua. ITZEA URKIZU

HERRIA	2019 ORAIN ERREPUBLIKAK (EH BILDU)	2014 LPD (EH BILDU)	2019 CEUS (EAJ)	2014 CEU (EAJ)	2019 PSE-EE	2014 PSE-EE	2019 ELKARREKIN PODEMOS	2014 AHAL DUGU	2019 PP	2014 PP	2019 C'S	2019 VOX	2019 ZURIAK	2014 ZURIAK	2019 ABS.	2014 ABS.
Abaltzisketa	79	61	86	37	3	0	2	0	0	0	0	0	3	0	30,03	58,26
Aduna	155	108	70	31	3	3	13	3	2	1	0	0	6	4	26,76	54,57
Albiztur	40	35	83	49	7	7	8	3	0	0	0	0	2	0	37,55	61,42
Alegia	448	262	306	162	67	21	54	27	15	14	6	1	7	7	27,79	58,85
Alkiza	87	59	56	38	11	0	3	4	1	0	1	0	4	1	32,94	60,44
Altzo	149	103	58	22	2	1	10	8	0	0	1	0	4	2	29,48	53,22
Amasa-Villabona	1254	754	875	424	320	166	210	89	71	80	41	13	35	29	32,36	60,43
Amezketeta	326	176	149	67	7	2	13	0	5	5	0	0	13	2	26,8	64,14
Anoeta	518	312	313	157	90	43	84	23	27	30	13	6	9	20	29,72	54,81
Asteasu	372	236	206	99	35	7	46	19	10	11	1	3	8	4	40,06	64,22
Baliarrain	35	24	15	4	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	42,22	69,47
Belauntza	61	42	55	19	3	2	11	1	0	0	0	0	1	1	29,25	67,61
Berastegi	313	169	261	97	28	5	29	8	5	8	1	0	9	2	22,69	62,3
Berrobi	135	104	77	25	15	2	20	0	5	6	0	1	8	0	35,81	64,99
Bidania-Goiatz	153	95	84	39	4	2	8	1	4	5	0	0	9	2	28,06	59,8
Elduain	73	55	38	27	0	0	2	0	0	0	0	0	2	0	36,95	54,44
Gaztelu	40	38	26	8	1	0	9	5	1	0	0	0	2	1	28,2	45,8
Hernialde	59	53	57	20	6	1	14	5	3	1	2	0	7	2	35,86	68,5
Ibarra	856	557	623	319	256	140	183	61	42	59	26	8	12	19	35,19	60,6
Ikaztegieta	142	86	95	46	11	10	12	4	2	3	3	0	2	2	25	55,46
Irura	376	212	301	127	64	23	57	29	8	12	20	5	13	10	31,65	59,46
Larraul	63	50	26	15	1	3	11	3	0	0	0	0	4	1	39,24	56,98
Leaburu-Txarama	125	99	63	40	3	0	6	2	0	2	0	0	3	4	26	45,29
Lizartza	264	218	59	41	3	1	6	2	0	3	0	0	9	3	24,72	41,2
Orendain	83	52	31	22	0	0	2	2	0	1	0	0	2	2	19,87	42,57
Orexa	72	66	2	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	3	15,9	20,22
Tolosa	3817	2285	3858	2059	1050	468	755	327	236	354	94	34	81	118	32,26	57,48
Zizurkil	655	440	424	206	246	96	89	40	34	41	13	5	9	18	33,21	58,88
GUZTIRA	10750	6751	8297	4201	2237	1003	1657	666	471	636	222	76	264	257		58,44